

# LEP

## GIDA

UPV/EHU



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)



# LEP G I D A

UPV/EHU

## Araba

Manuel Iradier, 40  
010015 **Gasteiz**  
☎ 9945 141 104  
araba@steilas.eus  
UPV/EHU Arabako Campusa  
Ikasgategia, 204. Bulegoa  
01006 **Gasteiz**  
☎ 945 013 397  
steilas-araba@ehu.es

## Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1 esk.  
48013 **Bilbo**  
☎ 944 100 298  
bizkaia@steilas.eus  
UPV/EHU Bizkaiko Campusa  
Liburutegi nagusia. Sarriena Auzoa z/g  
48940 **Leioa**  
☎ 946 012 434 ☎ 946 012 435  
☎ 946 015 287  
steilas-bizkaia@ehu.es

## Gipuzkoa

Basotxiki 30-34 atz.  
20015 **Donostia**  
☎ 943 466 000  
gipuzkoa@steilas.eus  
UPV/EHU Gipuzkoako Campusa  
Ignacio M<sup>a</sup> Barriola eraikina  
Elhuyar Plaza 1  
20018 **Donostia**  
☎ 943 018 436 ☎ 943 018 281  
steilas-gipuzkoa@ehu.es

## Nafarroa

Joaquin Beunza, 4-6 behea  
31014 **Iruñea**  
☎ 948 212 355  
nafarroa@steilas.eus

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)




# Aurkibidea


<b>1. Ikuspegi orokorra</b>	<b>4</b>
1. Egonkortasunerako ezohiko prozesua	4
2. Ohiko prozesua	4
<b>2. Deialdiak eta lanpostu kopurua</b>	<b>5</b>
Deialdiak eta lanpostu kopurua: Funtzionarioak	5
Lan Kontratudunak	6
<b>3. Merezimendu-lehiaketa</b>	<b>9</b>
Funtzionarioen sarbide orokorra eta lan-kontratudunen sarbide orokorra	9
Merezimendu-lehiaketa. Baremoa	
Funtzionarioen txanda librea eta lan-kontratudunen txanda librea	9
1. Merezimendu profesionalak	9
2. Merezimendu akademikoak	9
3. Euskara	11
Merezimendu-lehiaketa. Berdinketak hausteko irizpideak	
Funtzionarioen sarbide orokorra eta lan-kontratudunen sarbide orokorra	12
<b>4. Lehiaketa-Oposizioa</b>	<b>13</b>
Funtzionarioak	
<b>A. Sarbide orokorra</b>	<b>13</b>
Funtzionarioen sarbide orokorra. Baremoa	13
Oposizio fasea	13
Lehiaketa fasea	13
1. Merezimendu profesionalak	13
2. Merezimendu akademikoak	14
3. Euskara	15
Oposizio-lehiaketa. Berdinketak hausteko irizpideak	
Funtzionarioen sarbide orokorra	16
<b>B. Barne-promozioko sarbidea</b>	<b>17</b>
Funtzionarioen barne-promozioko sarbidea. Baremoa	17
Oposizio fasea	17
Lehiaketa fasea	17
1. Merezimendu profesionalak	17
2. Merezimendu akademikoak	18
3. Euskara	19
Lehiaketa-oposizioa. Berdinketak hausteko irizpideak	
Funtzionarioen barne-promozioko sarbidea	20

# 1. Ikuspegi orokorra

## 1. Egonkortasunerako ezohiko prozesua



## 2. Ohiko prozesua



## 2. Deialdiak eta lanpostu kopurua

### Deialdiak eta lanpostu kopurua: Funtzionarioak<sup>1</sup>

Funtzionarioak						
Taldea	Eskala	Prozesu espezifikoak	Guztira	Orokorra		Barne Prom
				Mer	Opo	
A	Gestioko teknikarien eskala	Gestio Orokorra	98	83	9	6
A	Gestioko teknikarien eskala	Zuzenbidea	27	21	6	
A	Gestioko teknikarien eskala	Ekonomia	16	14	1	1
A	Gestioko teknikarien eskala	Medikuntza	4	3	1	
A	Gestioko teknikarien eskala	Prebentzioa	6	5	0	1
A	Gestioko teknikarien eskala	Ingurumena	1	1	0	
A	Gestioko teknikarien eskala	Kazetaritza	6	5	1	
A	Gestioko teknikarien eskala	Psikologia	10	9	1	
A	Gestioko teknikarien eskala	Publizitatea	2	2	0	
A	Artxibo, Biblioteka eta Museoetako fakultatiboak	Biblioteka	9	0	0	9
B	Unibertsitate Gestioaren eskala	Gestio Orokorra	36	18	5	13
B	Unibertsitate Gestioaren eskala	Enpresa Zientziak	1	0	1	
B	Unibertsitate Gestioaren eskala	Erizaintza	4	2	2	
B	Artxibo, Biblioteka eta Museoetako laguntzaileak	Biblioteka	40	32	4	4
C	Administrarien eskala	Administrariak	212	23	23	166
D	Administrari laguntzaileen eskala	Laguntzaileak	251	205	32	14
E	Menpekoen eskala	Menpekoak	125	95	30	
<b>Funtzionarioak guztira</b>			<b>848</b>	<b>518</b>	<b>116</b>	<b>214</b>

Mer: merezimendu-lehiaketa

Opo: oposizio-lehiaketa

Barne Prom: barne promozioa

<sup>1</sup> Kontsulta itzazu deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan hizkuntza-eskakizunak, berariazko baldintzak eta desgaitasuna duten pertsonentzako plazak.

## Lan Kontratudunak

Taldea	Kategoria	Especialitatea	Guztira	Orokorra
				Merezimendu-lehiaketa <sup>2</sup>
1	IKTetako goi mailako teknikaria	Sistemen Informatika	18	18
1	IKTetako goi mailako teknikaria	Aplikazioen Informatika	8	8
1	Eraikuntza, Obra Zibil eta Mantentze Lanetako goi mailako teknikaria	Arkitektura eta obrak	5	5 (1)
1	Argitalpen eta Arte Grafikoetako goi mailako teknikaria	Argitalpenak eta Arte Grafikoak	1	1
1	Gestioko goi mailako teknikaria	Gestioa	7	7
1	Itzulpengintza eta Interpretazioko goi mailako teknikaria	Itzulpengintza/ Interpretazioa	2	2 (1)
1	Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria	Osasuna/ Animaliategia	1	1
1	Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria	Analisia	5	5
1	Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria	Erresonantzia Magnetiko Nuklearra	3	3
1	Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria	Geokronologia eta Geokimika	1	1
1	Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria	X Izpiak	2	2
1	Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria	Kalkulu Zientifikoa	2	2
1	Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria	Neurri Magnetikoak	2	2
1	Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria	Makroportaera-Mesoegitura-Nanoteknologia	1	1
1	Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria	Laser Tresna	1	1
1	Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria	Genomika	3	3
1	Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria	Proteomika	1	1
1	Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria	Material eta Gainazalen Mikroskopia	1	1
1	Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria	Mikroskopia Biomedikuntzan	2	2

<sup>1</sup> Kontsulta itzazu deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan hizkuntza-eskakizunak, berariazko baldintzak eta desgaitasuna duten pertsonentzako plazak.

<sup>2</sup> Parentesi artean, ohiko prozesuari dagozkion plazak

Taldea	Kategoria	Especialitatea	Guztira	Orokorra
				Merezimendu-lehiaketa <sup>2</sup>
1	Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria	Raman-Multiespektroskopia Akoplatuak	1	1
1	Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria	Fitotroia eta Berotegia	1	1
1	Irakaskuntza eta Ikerketarako Laguntzako goi mailako teknikaria	Mekanika	3	3
2	IKTetako maila ertaineko teknikaria	Sistemen Informatika	17	17 (2)
2	Itsas Jardueretako maila ertaineko teknikaria	Itsas Jarduerak	1	1
2	Gestioko maila ertaineko teknikaria	Gestioa	3	3 (2)
2	Irakaskuntza eta Ikerketarako Laguntzako maila ertaineko teknikaria	Mekanika	5	5 (3)
2	Irakaskuntza eta Ikerketarako Laguntzako maila ertaineko teknikaria	Kimika	3	3
2	Irakaskuntza eta Ikerketarako Laguntzako maila ertaineko teknikaria	Osasuna/Animaliategia	1	1 (1)
3	IKTetako teknikari espezialista	Sistemen Informatika	46	46
3	IKTetako teknikari espezialista	Aplikazioen Informatika	8	8
3	Elektrizitateko/Elektronikako teknikari espezialista	Elektrizitatea	7	7 (1)
3	Elektrizitateko/Elektronikako teknikari espezialista	Elektronika	8	8
3	Komunikazio, Irudi eta Soinuko teknikari espezialista	Komunikazioa, Irudia eta Soinua	38	38 (2)
3	Mekanikako teknikari espezialista	Mekanika	11	11 (1)
3	Kimikako teknikari espezialista	Kimika	22	22 (3)
3	Osasuneko/Animaliategiko teknikari espezialista	Osasuna/Animaliategia	14	14
3	Argitalpen eta Arte Grafikoetako teknikari espezialista	Argitalpenak eta Arte Grafikoak	1	1
3	Itsas Jardueretako teknikari espezialista	Itsas Jarduerak	1	1

<sup>1</sup> Kontsulta itzazu deialdi bakoitzeko oinarri espezifikotik hizkuntza-eskakizunak, berariazko baldintzak eta desgaitasuna duten pertsonentzako plazak.

<sup>2</sup> Parentesi artean, ohiko prozesuari dagozkion plazak

Taldea	Kategoria	Especialitatea	Guztira	Orokorra
				Merezimendu-lehiaketa <sup>2</sup>
3	Gestioko teknikari espezialista	Gestioa	1	1
3	Mantentze Lanetako eta Produkzioarako Zerbitzuetako teknikari espezialista	Mantentze Lanak eta Produkzioarako Zerbitzuak	5	5
3	Igeltserotzako teknikari espezialista	Igeltserotza	2	2
3	Pinturako teknikari espezialista	Pintura	1	1
3	Zurgintzako teknikari espezialista	Zurgintza	4	4
3	Hezkuntzarako Laguntzako teknikari espezialista	Hezkuntzarako Laguntza	5	5
3	Geologiako teknikari espezialista	Geologia	1	1
4	Sistemen Informatikako teknikari laguntzailea	Sistemen Informatika	6	6
4	Kimikako teknikari laguntzailea	Kimika	1	1
4	Osasuneko/Animaliategiko teknikari laguntzailea	Osasuna/Animaliategia	5	5
4	Jarduera Espezifikoetako teknikari laguntzailea	Mantentze Lanak eta Produkzioarako Zerbitzuak	2	2
4	Jarduera Espezifikoetako teknikari laguntzailea	Biltegia	4	4
4	Argitalpen eta Arte Grafikoetako teknikari laguntzailea	Argitalpenak eta Arte Grafikoak	2	2 (1)
4	Arte eta Gorputz Adierazpeneko teknikari laguntzailea	Arte eta Gorputz Adierazpena	4	4
<b>Lan kontratudunak guztira</b>			300	300 (18)

<sup>1</sup> Kontsulta itzazu deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan hizkuntza-eskakizunak, berriazko baldintzak eta desgaitasuna duten pertsonentzako plazak.

<sup>2</sup> Parentesi artean, ohiko prozesuari dagozkion plazak



### 3. Merezimendu-lehiaketa. Funtzionarioak eta lan-kontratudunak

#### Merezimendu-lehiaketa. Baremoa Funtzionarioen sarbide orokorra eta lan-kontratudunen sarbide orokorra

##### 1. Merezimendu profesionalak

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, eskariak aurkezteko azken egunera arte. Gehienez ere, 8 puntu:

- a. 0,048 puntu lan egindako hilabete osoko, **Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean** bitarteko funtzionario legez deialdiko eskala berean, edo aldi baterako lan kontratadun legez talde, kategoria eta espezialitate berean.
- b. 0,024 puntu lan egindako hilabete osoko, **beste edozein unibertsitate publikotan bitarteko funtzionario** legez deialdiko eskalaren parekoan, edo aldi baterako lan kontratadun legez pareko kategoria eta espezialitatean.
- c. 0,016 puntu lan egindako hilabete osoko, **beste edozein administrazio publikotan** bitarteko funtzionario legez deialdiko eskalaren parekoan, edo aldi baterako lan kontratadun legez pareko kategoria eta espezialitatean.
- d. 0,012 puntu lan egindako hilabete osoko, **Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean** bitarteko funtzionario legez deialdikoarekin bat ez datorren eskalan, edo aldi baterako lan kontratadun legez deialdikoarekin bat ez datorren talde, kategoria eta espezialitatean.

##### Oharra:

Puntuak zenbatzeko, lan egindako aldien batuketa egingo da, eta azken baturan ez da kontuan izango 30 egun naturaletik beherako zatirik.

Zerbitzu eginkizunetan (funtzionarioak) edo eginkizunen aldi baterako esleipenaren bidez (lan-kontratadunak) emandako aldietan, aldi horri dagokion izendapenean edo kontratuan ageri den lanpostuari dagozkion zerbitzuak baloratuko dira.

Funtzionarioen Gestioiko teknikarien eskalako (A taldea) eta Unibertsitate gestioaren eskalako (B Taldea) deialdietan emandako zerbitzuak behin baino ez dira baloratuko, eta ezin izango dira erabili eskala bereko prozesu espezifiko desberdinetan.

##### 2. Merezimendu akademikoak

Merezimendu akademikoak: gehienez 2 puntu.

1. Titulazio akademikoak: Titulu akademikoei 1 puntu emango zaie gehienez, eskatutako lanpostuari dagokion sailkapen taldean sartzeko beharrezko tituluari izan ezik, modu honetara banatuta:

- Eskuratu nahi den lanpostuaren sailkapen taldean sartzeko eskatutakoen gainerik dagoen titulu bat edukitzea: 1 puntu titulazioko. Atal hau ez zaie ezarriko I eta A taldeei.
- Eskuratu nahi den lanpostuaren sailkapen taldean sartzeko eskatzen den beste titulazio bat edukitzea: 0,5 puntu titulazioko. Atal hau ez zaio ezarriko E taldeari.

**Oharra:**

Titulu bat baloratzen denean ez dira baloratuko hori lortzeko behar diren beheragoko tituluak.

Ez dira merezimenduztat baloratuko baldintzak betetzeko erabilitako titulazioak.

2. Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzak: gehienez 1 puntu, era honetara banatuta:

**A. I/A eta II/B taldeak**

- Europako Marko Bateratuko C2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko C1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,75 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko.

**B) III/C, IV/D eta E taldeak**

- Europako Marko Bateratuko C1 mailako edo maila goragoko frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,75 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko A2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko.

**Oharra:**

Balorazioa 2017ko maiatzaren 22ko Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearen erabakiaren arabera, 2017ko maiatzaren 22ko erabaki bidea eguneratu zena, edo erabaki horren ordezkoko araudia.

Puntuazioa ez da metagarria izango; hau da, hizkuntza batean maila bat baloratzen denean, ez dira baloratuko hortik beherako mailak.

3. Hautaketa prozesu bat gainditu izana, bai lan kontratudun finko edo karrerako funtzionario izateko, hautatua izan gabe, bai aldi baterako enplegu publikorako lan poltsak eratzeko: gehienez 1 puntu honen arabera:

- **UPV/EHU**ko hautaketa prozesuak, deialdiko eskala bereko funtzionarioentzat eta talde, kategoria eta espezialitate bereko lan kontratudunentzat: 1 puntu.
- **Beste unibertsitate batzuetako** hautaketa prozesuak, deialdiko talde eta eskala bereko funtzionarioentzat eta pareko talde, kategoria eta espezialitateko lan kontratudunentzat: 0,5 puntu prozesuko.
- **Beste administrazio publikoetako** hautaketa prozesuak, deialdiko eskalaren pareko funtzionarioentzat eta pareko talde, kategoria eta espezialitateko lan kontratudunentzat: 0,33 puntu prozesuko.

**Oharra:**

Merezimendu hau egiaztatzeko, funtzio publikoaren arloko organo eskudunaren egiaztagiria aurkeztu behar da zehaztuta deialdia noiz argitaratu zen, zein eskalatarako edo kategoria eta espezialitaterako izan zen eta lortutako nota. UPV /EHUren hautaketa prozesuetarako, alegatu egin beharko da merezimendua, baina ofizioz egiaztatuko da.

4. Eskariak aurkezteko epea bukatzean UPV /EHUko lan poltsetan egotea, deialdiko eskala berean edo kategoria eta espezialitate berean: 1 puntu.

### 3. Euskara

Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legeko 98.4 artikulua ezarriz, hautaketa prozesuan hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa ez denean, euskararen jakite maila merezimendutzat hartuko da. Baloraziorako, kontuan hartuko da deialdiko lanpostuetan nagusi den hizkuntza eskakizuna, eta era honetara puntuatuko da:

- Eskalan edo kategorian 1. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  - 1. HE edo goragokoa izateagatik: 0,5 puntu.
- Eskalan edo kategorian 2. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  - 1. HE izateagatik: 0,5 puntu.
  - 2. HE edo goragokoa izateagatik: puntu 1.
- Eskalan edo kategorian 3. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  - 1. HE izateagatik: 0,5 puntu.
  - 2. HE izateagatik: puntu 1.
  - 3. HE edo goragokoa izateagatik: 1,5 puntu.

## Merezimendu-lehiaketa. Berdinketak hausteko irizpideak

### Funtzionarioen sarbide orokorra eta lan-kontratudunen sarbide orokorra

1. Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazioko lan esperientzian, deialdiko eskala berean (funtzionarioak) edo talde, kategoria eta espezialitate berean (lan-kontratudunak), egunka kontatuta eta mugarik gabe.
2. Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazioko lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
3. Puntuaziorik handiena administrazio publikoetako lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
4. Puntuaziorik handiena merezimendu profesionalen atalean.
5. Puntuaziorik handiena hautaketa prozesuetako atalean.
6. Puntuaziorik handiena lan poltsen atalean.
7. Puntuaziorik handiena beste titulazio ofizialen atalean.
8. Puntuaziorik handiena EAEko hizkuntza ez ofizialen atalean.
9. Berdinketa apurtu ez bada, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia % 40ren azpitik dagoen administrazioko talde, kategoria eta espezialitateetan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenak, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko edo lanean gora egiteko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.
10. Hala ere berdinketarik egonez gero, berdinduta daudenen artean UPV /EHUK egingo duen zozketaren bidez lortutako hurrenkera ezarriko da.

## 4. Lehiaketa-Oposizioa. Funtzionarioak

### A. Sarbide orokorra

#### Funtzionarioen sarbide orokorra. Baremoa

##### Oposizio fasea

- Proba teoriko-praktikoan 20 puntu lortu ahal izango dira guztira, eta proba gainditzeko, 10 puntu. beharko dira.
- Proba test moduko ariketa bat izango da: galde kopuru zehatz bat izango du, galdera bakoitzerako lau erantzun emango dira aukeran, eta bakarra izango da zuzena. Galderak kasuan kasuko galdera sortakoak izango dira, eta lau (4) hilabete lehenago argitaratuko dira.
- Erantzun okerrengeatik eta erantzun gabeko galderengatik ez da punturik kenduko.

Taldea	Galdera sortaren galdera kopurua	Gai-kopurua	Galdera kopurua	Denbora
A	700	50	100+20	120 minutu
B	600	40	80+20	100 minutu
C	500	35	60+20	80 minutu
D	450	25	50+20	70 minutu
E	400	20	40+20	60 minutu

##### Lehiaketa fasea

- Gehienez ere 9 puntu.
- Merezimenduak eskuratuta izan behar dira eskariak aurkezteko epea bukatzen den egunean, eta, oro har, ondorengo merezimenduak hartuko dira kontuan ondorengo baremoaren arabera:

#### 1. Merezimendu profesionalak

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak deialdi bakoitzerako eskariak aurkezteko azken egunera arte: gehienez ere 9 puntu, modu honetara banatua:

- a. **UPV /EHU**n emandako zerbitzuak, deialdiko eskala berean: 0,1 puntu lan eginiko hilabete oso bakoitzeko; gehienez, 9 puntu.

- b. **Beste unibertsitate publiko** batzuetan emandako zerbitzuak, deialdiari dagokion pareko eskalan: 0,1 puntu lan eginiko hilabete oso bakoitzeko; gehienez 6 puntu.
- c. Beste **administrazio publiko** batzuetan emandako zerbitzuak, deialdiari dagokion pareko eskalan: 0,1 puntu lan eginiko hilabete oso bakoitzeko; gehienez, 4,5 puntu.

**Oharra:**

Puntuak zenbatzeko, lan egindako aldien batuketa egingo da, eta azken baturan ez da kontuan izango 30 egun naturaletik beherako zatirik.

Zerbitzu eginkizunetan emandako aldietan, aldi horri dagokion izendapenean ageri den lanpostuari dagozkion zerbitzuak baloratuko dira.

Gestioko teknikarien eskalako (A taldea) eta Unibertsitate gestioaren eskalako (B Taldea) deialdietan emandako zerbitzuak behin baino ez dira baloratuko, eta ezin izango dira erabili eskala bereko prozesu espezifiko desberdinetan.

## 2. Merezimendu akademikoak

- Titulazio akademikoak: titulu akademikoei 1,5 puntu emango zaie gehienez, eskatutako lanpostuari dagokion sailkapen taldean sartzeko beharrezko tituluari izan ezik, modu honetara banatuta:
- Eskuratu nahi den postuaren sailkapen taldean sartzeko eskatutakoen gaineratik dagoen titulu bat edukitzea: 1,5 puntu.
  - Eskuratu nahi den sailkapen taldean sartzeko eskatzen den tituluz gain, beste bat edukitzea: 0,75 puntu.

**Oharra:**

Titulu bat baloratzen denean ez dira baloratuko hori lortzeko behar diren beheragoko tituluak.

- Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzak. Gehienez ere 1,50 puntu emango da, betiere baremo honen arabera:

A eta B taldeak

- Europako Marko Bateratuko C1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko.

C, D eta E taldeak

- Europako Marko Bateratuko B2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko A2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko

**Oharra:**

Balorazioa 2017ko maiatzaren 22ko Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearen erabakiaren arabera, 2017ko maiatzaren 22ko erabaki bidea eguneratu zena, edo erabaki horren ordezkotza araudia.”

Puntuazioa ez da metagarria izango; hau da, hizkuntza batean maila bat baloratzen denean, ez dira baloratuko hortik beherako mailak.

### 3. Euskara

Derrigorrezko hizkuntza eskakizunik ez duten lanpostuetarako, honako hau izango da puntuazioen banaketa, eta ezin izango da lortu tarteko puntuaziorik:

- Eskalan 1. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  - 1. HE edo goragokoa izateagatik: 1,45 puntu.
- Eskalan 2. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  - 1. HE izateagatik: 1,45 puntu.
  - 2. HE edo goragokoa izateagatik: 2,90 puntu.
- Eskalan 3. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  - 1. HE izateagatik: 1,45 puntu.
  - 2. HE izateagatik: 2,90 puntu.
  - 3. HE edo goragokoa izateagatik: 4,35 puntu.

## Oposizio-lehiaketa. Berdinketak hausteko irizpideak

### Funtzionarioen sarbide orokorra

1. Puntuaziorik handiena UPV /EHUko lan esperientzian, deialdiko eskala berean, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
2. Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazioko lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
3. Puntuaziorik handiena administrazio publikoetako lan esperientzian, deialdiko eskala berean, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
4. Puntuaziorik handiena merezimenduen ataletako bakoitzean, deialdiko oinarrietan zehaztutako hurrenkerari jarraikiz, eta kontuan hartu gabe horietako bakoitzerako zehaztutako puntuazio mugak.
5. Oposizio fasean lortutako puntuaziorik handiena.
6. Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legeak 27.2 artikuluan zehaztutakoari jarraituz, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia % 40ren azpitik dagoen administrazioko kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenak, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.
7. Hala ere berdinketarik egonez gero, berdinduta daudenen artean UPV/EHUK egingo duen zozketaren bidez lortutako hurrenkera ezarriko da.



## B. Barne-promozioko sarbidea

### Funtzionarioen barne-promozioko sarbidea. Baremoa

#### Oposizio fasea

- Proba teoriko-praktikoan 20 puntu lortu ahal izango dira guztira, eta proba gainditzeko, 10 puntu. beharko dira.
- Proba test moduko ariketa bat izango da: galde kopuru zehatz bat izango du, galdera bakoitzerako lau erantzun emango dira aukeran, eta bakarra izango da zuzena. Galderak kasuan kasuko galdera sortakoak izango dira, eta lau (4) hilabete lehenago argitaratuko dira
- Erantzun okerrengeatik eta erantzun gabeko galderengatik ez da punturik kenduko.

Taldea	Galdera sortaren galdera kopurua	Gaikopurua	Galdera kopurua	Denbora
A	350	40	60+5	70 minutu
B	300	30	50+5	60 minutu
C	250	20	35+5	45 minutu
D	200	15	30+5	40 minutu

#### Lehiaketa fasea

- Gehienez ere 9 puntu.
- Merezimenduak eskuratuta izan behar dira eskariak aurkezteko epea bukatzen den egunean, eta, oro har, ondorengo merezimenduak hartuko dira kontuan ondorengo baremoaren arabera:

#### 1. Merezimendu profesionalak

- Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak: Administrazio publikoetako antzintasuna, eskabideak aurkezteko azken egunera artekoa: 9 puntu gehienez: 0,04 puntu zerbitzuan emandako hilabete oso bakoitzeko.
- UPV/EHUK hirurtekoen ondorioetarako aitortutako antzintasuna baino ez da zenbatuko.
- Puntuak zenbartzeko, lan egindako aldien batuketa egingo da, eta azken baturan ez da kontuan izango 30 egun naturaletik beherako zatirik.
- Emandako zerbitzuen denbora behin bakarrik baloratuko da, eta ezin izango da berriro erabili prozesu espezifiko desberdinetan sartzeko. Beraz, merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko barne-sustapeneko oinarri orokorren 8.4.1 oinarrian ezarritako epean, hautagaiak zehaztu egin beharko du egindako zerbitzu-denbora zein prozesu espezifiori lotzea erabakitzen duen.

## 2. Merezimendu akademikoak

→ Titulazio akademikoak: titulu akademikoei 1,5 puntu emango zaie gehienez, eskatutako lanpostuari dagokion sailkapen taldean sartzeko beharrezko tituluari izan ezik, modu honetara banatuta:

- Eskuratu nahi den postuaren sailkapen taldean sartzeko eskatutakoen gaineratik dagoen titulu bat edukitzea: 1,5 puntu.
- Eskuratu nahi den sailkapen taldean sartzeko eskatzen den tituluz gain, beste bat edukitzea: 0,75 puntu.

### Oharra:

Titulu bat baloratzen denean ez dira baloratuko hori lortzeko behar diren beheragoko tituluak.

→ Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzak. Gehienez ere 1,50 puntu emango da, betiere baremo honen arabera:

### A eta B taldeak

- Europako Marko Bateratuko C1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko.

### C, D eta E taldeak

- Europako Marko Bateratuko B2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko A2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko.

### Oharra:

Balorazioa 2017ko maiatzaren 22ko Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearen erabakiaren arabera, 2017ko maiatzaren 22ko erabaki bidea eguneratu zena, edo erabaki horren ordezkotza araudia.”

Puntuazioa ez da metagarria izango; hau da, hizkuntza batean maila bat baloratzen denean, ez dira baloratuko hortik beherako mailak.

### 3. Euskara

---

Derrigorrezko hizkuntz eskakizunik ez duten lanpostuetarako, honako hau izango da puntuazioen banaketa, eta ezin izango da lortu tarteko puntuaziorik:

- Eskalan 1. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  1. HE edo goragokoa izateagatik: 1,45 puntu.
- Eskalan 2. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  1. HE izateagatik: 1,45 puntu.
  2. HE edo goragokoa izateagatik: 2,90 puntu.
- Eskalan 3. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  1. HE izateagatik: 1,45 puntu.
  2. HE izateagatik: 2,90 puntu.
  3. HE edo goragokoa izateagatik: 4,35 puntu.

## Lehiaketa-oposizioa. Berdinketak hausteko irizpideak

### Funtzionarioen barne-promozioko sarbidea

1. Puntuaziorik handiena UPV/EHUko esperientzian, funtzionarioen edozein taldetan, karrerako funtzionario legez zein bitarteko funtzionario legez, edo edozein kategoria profesionaletan, lan kontratudun finko legez zein aldi baterako lan kontratudun legez; egunka kontatuta eta mugarik gabe.
2. Puntuaziorik handiena administrazio publikoetako lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
3. Puntuaziorik handiena merezimenduen ataletako bakoitzean, deialdiko oinarrietan zehaztutako hurrenkerari jarraikiz, eta kontuan hartu gabe horietako bakoitzerako zehaztutako puntuazio mugak.
4. Oposizio fasean lortutako puntuaziorik handiena.
5. Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legeak 27.2 artikuluan zehaztutakoari jarraituz, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia % 40ren azpitik dagoen administrazioiko kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenak, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.
6. Hala ere berdinketarik egonez gero, berdinduta daudenen artean UPV /EHUK egingo duen zozketaren bidez lortutako hurrenkera ezarriko da.

A series of 25 horizontal dotted lines spanning the width of the page, providing a template for writing.

A series of horizontal dotted lines for writing, consisting of 25 lines spaced evenly down the page.